

# UDA *aiarsaldean*







# Herritarrik gabe jairik ez

Aurten ere, Aretako Jai Batzordeak ez ditu festak antolatuko, jai eredu herrikoiei eta parte-hartzaile bat aurrera ateratzeko baldintzarik ez dagoela ulertuta. Bi urteko geldialdiak hainbat hutsune sortu ditu Aretan. Horren inguruan hausnartu dute Aiaraldea Komunikabidearekin.



Testua eta  
argazkia **Aimar  
Gutierrez Bidarte**

Gaur egungo Aretako Jai Batzordeak 20 urte daramatza jai eredu herritar eta parte hartzaile baten alde lanean. 2001. urtean, etenaldi baten ostean, oso ekintza gutxi antolatu ziren Aretako Jaietan, nagusiki udalak sustatutakoak. Horrek elkartzeko beharra mahaigaineratu eta gaur egungo Jai Batzordea sortzera bultzatu zituen herritarrak.

Geroztik asko izan dira taldetik igaro diren auzokideak, eta bakoitzak bere ibilbidea egin du bertan. Gaur da eguna non belaunaldi desberdinetako hainbat lagun elkartzen diren bertan. Baina urtean zehar erregularitasunez elkartzen den 8-10 laguneko talde egonkorraz haratago doan antolakuntza eredu dela nabarmendu dute, Aretako jaietako ekintza desberdinen atzean elkarte, eragile, elkarte eta norbanako ugari baitaude. Horien guztien koordinazioaz eta batasunaz arduratzen da nagusiki Jai Batzordea. "Jaietako ekintza bakoitzaren atzean talde desberdinak daude: asto

lasterketan, mendi martxan, herri bazkarian, kalejiretan, herri kiroletan... Batzordetik jaiak antolatzeko oinarria, egitura, jartzen dugu, eta ekintza bakoitza bere bidea egiten doa".

Hain zuzen ere parte hartze eredu hori da, orain COVID-19aren ondorioz, arriskuan ikusten dutena. Bi urteko geldialdiak jendearen interes eta motibazioak alda ditzake eta zenbait ekintza egiteari utziko dioten beldur dira: "Urteen poderioz oso ondo sistematizatuta genuen jaien antolakuntza, bakoitzak oso argi zuen zein zen bere funtzioa. Orain, nolabait, zerotik hasi beharko gara. Horrek lan handia ekarriko du".

## *Herritik eta herriarentzat*

Jai parte-hartzaileetaz hitz egiten denean Aretan ez da eslogan huts bat, inon baino hobeto eraman baitute praktikara jaiak herritik eta herriarentzat antolatzearen filosofia.

Zenbatzen hasi eta 200dik gora lagun kontabilizatu dituzte modu batean edo bestean jaien prestaketan aktiboki antolatuta. Zifra are esanguratsuagoa Aretan

## 200 LAGUNEK BAINO GEHIAGOK PARTE HARTZEN DUTE ARETAKO JAIEN PRESTAKETAN

1.600 biztanle bizi direla jakinda, hau da, herritren %10 baino gehiago ari da jaiak aurrera ateratzeko lanean. "Norberak badaki non egon behar duen jaietan, izan txosnan zerbitzatzen, trail lasterketa antolatzen, herri bazkaria sukaldatzen... Gure helburua ez da ekintzak antolatzea, baizik eta jendea horretarako aktibatzea, herritarren parte-hartzea sustatzea. Hori da gure jai eredu".

Eredu horri eutsi ezin izana izan da bi urte hauetan jaiak ez antolatzearen arrazoi nagusia: "Ezinezkoa izan da jaiak guk bultzatu nahi dugun filosofiarekin antolatzea, horregatik ez ditugu antolatu."

## *Herria egiten*

Jaiek funtsezko papera betetzen dute ere Aretaren egituraketa eta kohesio sozialean: "Egun batez herri bazkarian elkar ikusteak urte osorako harremanak estutzen laguntzen du. Bizilagun askok jaietan bakarrik ikusten dute elkar. Azken bi urtetako geldialdiak herriko bizitza soziala apaldu du ere".

Aretako aisialdi eta kultura eskaintzaren gehiengoak Jai Batzordearen eskuetan dago ere, jaien aurretik eta ostean antolatzen dituzten ekintzei esker. Ez dira gutxi ekintza horiek:



"Olentzeroren kalejira, San Juan bezperako sua, jai herrikoien aldeko enkantea, Santa Agedako kalejira, Aretako haurrentzako udaleku eta tailerrak...". Bestelako ekintzak ere babesten zituzten, hala nola, Aretako Gazte Asanbladaren hainbat jarduera. Guzti horren faltak ere eragin zuzena du Aretako eguneroko bizitzan: "Oso giro monotonoa ari da nagusitzen".

Beste hutsune bat nabarmendu dute ere batzordetik: "festen faltak bakarrik ez, elkartzeko espazio erreferente baten hutsuneak ere eragina du aretarron kohesioan". Kultur Etxeaz ari dira, azken hiru urteak publikoari itxita egon den espazioa. Hor ere borrokan ari dira Aretako bizilagunak, eredu herrikoi eta zabal bat sustatuko duen Kultur Etxearen alde.

*Lekukoa eskuz esku*

Belaunaldi berriek ez diote Jai Batzordeari hurbiltzeari utzi, baina festen etenaldiak aurrekari arriskutsu bat ezarri dezakeela nabarmendu dute: "2019an Aretako gaztetxeko koadrila bat hasi zen bileretara hurbiltzen, baina bi urteko hutsune honek agian desaktibatu egin ditu, orain arte ezin

izan baitute eurak propioki antolatutako jai batzuez gozatu. Guk, orain arte batzordean ibili garenok, barneratua dugu jaiez gozatzeko modu hau, urte osoa ematen dugu astebeteko festak prestatzen, lan handia da baina behin bukatuta eta dena ondo joan dela ikusita sentzazioa oso positiboa da, eta ia atsedetik hartu gabe hurrengo urteko festeak antolatzen hasten gara buru-belarri. Zaila da belaunaldi gazteak gorpil horretara igotzea bizi dugun egoerarekin".

Gazte belaunaldi horiek euren bidea egiten ari direla nabarmendu dute eta eredu errotu baten faltan beste modu batean bideratuko dute jaiekiko grina: "Jakín behar dugu eraldatzen eta bide berriak ibiltzen".

Gazteak bakarrik ez, Aretako gainerako auzokideak ere aktibatu nahi dituzte jaien antolakuntzan etorkizunean: "Gazteetaz hitz egiten da baina herriko belaunaldi ugariaren parte-hartzea falta da oraindik. Guztion interesak egon behar dira islatuta jaietan; gaueko giroa nahi dutenena eta bestelako jarduera batzuez gozatu nahi dutenena."

COVID-19ak berrasmatzeko eta aktibaziorako aukera eskaini dezake agian: "Ez goaz ezerezetik hastera, baina bai

## "JENDEAK ULERTU BEHAR DU GAUZAK AURRERA ATERATZEKO HAUEK ANTOLATU BEHARRA DAGOELA"

urratsak ikuspegi berri batetik ematera, agian hau da unea urteetan zehar automatikoki egindako hainbat jarduera berrikusi eta berriro planteatzeko, jende berriarengana eskaintza berri batekin iristeko".

Gauzak ez direla berariaz sortzen azpimarratu nahi dute batzordeko kideek, hots, ahalegin eta esfortzu bat exijitzen dutela, eta hori guztion artean aurrera atera beharra dagoela: "Jendeak ulertu behar du gauzak aurrera egiteko hauek antolatu beharra dagoela eta antolaketa hori ez dela hutsetik sortzen, herritar ororen inplikazioa ezinbetsekoa da."

Zentzu horretan, ateak parez pare dituzte zabalik Aretan. Batzordearen funtzionamendua erabat horizontala eta irekia da, edonork hartu dezake bileretan parte, eta iritzi guztiak dira ongi etorriak.

Nolanahi ere, Aretako Jai Batzordetik argi dute berriro egongo dela jaiez gozatzeko aukera, eta horren alde egingo dute lan atsedetik gabe: auzokideak berriro aktibatuz, antolatuz, saretuz... Finean hobekien egiten dakitena egiten; jaiak herritik eta herriarentzat leloa praktikara eramanez, urte luzez demostratu duten bezala.



**xarmenta**  
j a t e t x e a

- Eguneko menuak
- Karta eta menu bereziak
- Ospakizunak

Tel. 94 672 47 34  
Zuloaga auzoa. ARRANKUDIAGA

**EL TUNEL**  
TABERNA-JATETXEA

- Afariak
- Etxera eramateko janaria
- Eguneko menua

Gasteiz kalea, 5 ARETA-LAUDIO  
T. 94 672 05 58

**AUTOBUSES**  
**ONIEVA**

Informazioa eta erreserbak: 94 672 64 45  
Larrialdiak: 619 76 66 51

71 eserleku arteko autobusak

[www.onieva.com](http://www.onieva.com)  
[onieva@onieva.com](mailto:onieva@onieva.com)



# uztailerako agenda

2021eko ekainaren 30  
2021eko uztailaren 31

## MUSIKA

### 06.30 *Asteazkena*

AMURRIO  
*Amurrio Kultur Tantak*  
*egitarauaren barruan*  
**ERIZ PEREZ TRIO**  
20:00 // Amurrioko  
parkea

### 07.02 *Ostirala*

AMURRIO  
*Amurrio Kultur Tantak*  
*egitarauaren barruan*  
**LOMOKEN HOBOKEN**  
20:00 // Amurrioko  
parkea

### 07.03 *Larunbata*

OROZKO  
*OrozkoRock*  
**THE PUSHHERMEN**  
13:00 // Txopera parkea

### 07.09 *Ostirala*

LAUDIO  
**ZIZTADA & R-LANTZ**  
20:00 // Txopera parkea

### 07.10 *Larunbata*

LAUDIO  
*KultUda ekimenaren barruan*  
**SON DE INDIANOS**  
20:00 // Aldai plaza

### 07.16 *Ostirala*

LAUDIO  
*KultUda ekimenaren barruan*  
**SANTA LUZIA ABESBATZA**  
20:00 // Aldai plaza

### 07.16 *Ostirala*

AMURRIO  
*Amurrio Kultur Tantak*  
*egitarauaren barruan*  
**GWA YA**  
20:00 // Amurrioko  
parkea

### 07.16 *Ostirala*

ARTZINIEGA  
*Mendieta Kultur Elkarte*  
**CARLOS HERRERO**  
20:00 // Komentua

### 07.17 *Larunbata*

OROZKO  
*OrozkoRock*  
**MOCKER`S**  
19:00 // Txopera parkea

### 07.17 *Larunbata*

LAUDIO  
*KultUda ekimenaren barruan*  
**CUCHILLO MANTECA**  
20:00 // Aldai plaza

### 07.23 *Ostirala*

AMURRIO  
*Amurrio Kultur Tantak*  
*egitarauaren barruan*  
**KEU AGIRRETXE ETA PABLO  
NOVO**  
20:00 // Amurrioko  
parkea

### 07.30 *Ostirala*

AIARA  
**HOTEL RUIDO**  
20:00 // Aiarako udal  
igerilekuak

### 07.31 *Larunbata*

OROZKO  
*OrozkoRock*  
**TRAVELLIN BROTHERS**  
13:00 // Txopera parkea

## HAURRENTZAKO JARDUERAK

### 06.30 *Asteazkena*

ARTZINIEGA  
4 urtetik gorakoentzat  
**IPUIN TXIKIAK: PRINTZESEN  
GAZTELUA**  
12:00 // Liburutegia

### 07.01 *Osteguna*

AMURRIO  
*Amurrio Kultur Tantak*  
*egitarauaren barruan*  
**FROZEN II**  
22:00 // Amurrioko  
parkea

### 07.03 *Larunbata*

LAUDIO  
*KultUda ekimenaren barruan*  
**BASOKO IPUIN TTIPIAK**  
10:00 // Lamuza parkea

### 07.16 *Ostirala*

AIARA  
**ZIRKU BIZIA**  
18:30 // Aiarako udal  
igerilekuak

### 07.18 *Igandea*

LAUDIO  
*Sorginlarrenen 5. urteurreneko*  
*egitarauaren barruan*  
**LUXA MENDIRA IBILALDIA**  
20:00 // Alberto Acero  
plaza

## TAILERRAK

### 06.30 *Asteazkena*

AMURRIO  
14 urtetik gorakoentzat  
**GAME ACADEMY**  
**Bideojoko tailerra**  
10:00 // Amurrio Bidean

### 07.01 *Osteguna*

LAUDIO  
*Gazte Asanbladak antolatuta*  
**ESKALADA IKASTAROA**  
**ARETAKO HARROBIAN**  
10:00 // Lamuza plaza

### 07.06 *Astearte*

OROZKO  
**ZIANOTIPIA ETA BOTANIKA**  
**IKASTAROA**  
11:00 // Lamuza plaza

### 07.15 *Osteguna*

OROZKO  
**ZIRKU TAILERRA**  
**LORATEGIAN**  
17:00 // Artiñano etxea

### 07.16 *Ostirala*

ARRANKUDIAGA-ZOLLO  
*Aiko elkarteak gidatuta*  
**HERRIEN ARTEKO DANTZA**  
**IKASTAROA**  
19:00 // Arrankudiagako  
plaza







## IKUSKIZUNAK

### 07.02 *Ostirala*

AIARA  
**TIK TAK**  
18:30 // Aiarako udal  
igerilekuak

### 07.02 *Ostirala*

URDUÑA  
1. ARTE ESZENIKOEN  
JAIALDIA EMAKUMEENTZAT  
19:00 // **FOROA**  
**ALONDEGIAN**  
21:00 // **CRISTINA CALVO:**  
**LO QUE ME SALE DE LA**  
**CONCHA**  
Andra Mari plaza

### 07.02 *Ostirala*

AIARA  
**ALTXA KOPLA HORI!**  
20:00 // Luiaondoko  
frontoia

### 07.03 *Larunbata*

URDUÑA  
1. ARTE ESZENIKOEN  
JAIALDIA EMAKUMEENTZAT  
10:00 // **UMEENTZAKO**  
**TAILERRAK**  
21:00 // **TEPIS TEATRO**  
21:00 // **COLECTIVO AREA**  
21:00 // **CIA IDO LO CA**  
21:00 // **AVRIL TEATRO**  
**BREVE**  
21:00 // **LAS LENTEJAS**  
Andra Mari plaza / Zezen  
plaza

### 07.03 *Larunbata*

LAUDIO  
**HARROBI DANTZA**  
**BERTIKALA**  
20:00 // Faktoria

### 07.06 *Astearte*

AIARA  
**TXORIAK TXORI**  
18:30 // Aiarako udal  
igerilekuak

### 07.09 *Ostirala*

LAUDIO  
KultUda ekimenaren barruan  
**BIDEAREN AMAIERA**  
**Hortzmuga teatro taldearen**  
**antzezlan.**  
20:00 // Herriko Plaza

### 07.09 *Ostirala*

AIARA  
**BOCABEATS COMEDIA**  
20:00 // Aiarako udal  
igerilekuak

### 07.13 *Astearte*

TOLOGORRI  
**URMUGA EKIMENAREN**  
**IBILALDIA ETA**  
**KONTZERTUA**  
15:00 // La Ponata

### 07.16 *Ostirala*

AIARA  
**KORTERRAZA, FILM**  
**LABURREN JAIALDIA**  
22:00 // Lantenoko  
eskolak

### 07.23 *Ostirala*

AIARA  
**ALTRIUS MAGOA**  
19:00 // Lantenoko  
eskolak

### 07.31 *Larunbata*

AMURRIO  
Amurrio Kultur Tantalak  
egitarauaren barruan  
**DEABRU BELTZAK**  
**“Les tambors de feu”**  
**piroteknia eta musika**  
**ikuskituna**  
22:00 // Amurrioko  
parkea

## KIROL JARDUERAK

### 07.03 *Larunbata*

AIARA  
Euskadiko Txapelketarako  
proba puntuagarria  
**AIARA BTT**  
09:00 // Etxaurren  
Ikastola

### 07.12 *Astelehena*

URDUÑA  
Udalak antolatutako  
egitarauaren barruan  
**ESKALADA ETA RAPELA**  
**OROKO SANTUTEGIAN**  
09:00 // Suhiltzaileak

### 07.14 *Asteazkena*

URDUÑA  
Udalak antolatutako  
egitarauaren barruan  
**ARROILA-JAITSIERA**  
**AGUAKE ARROILAN**  
08:45 // Suhiltzaileak

### 07.17 *Larunbata*

LAUDIO  
Peña Altzarratek  
antolatuta KultUda  
egitasmoaren barruan  
**COVID GABE LAUDIO TRAIL**  
18:00 // Ikastolako  
aparkalekua







# Ugarten kultura bizirik dagoela aldarrikatuko dute auzotarrek



Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

**U**garteko jaiak ofizialki bigarren urtez bertan behera geratu diren arren auzotarrak ez dira besoak gurutzaturik geratu eta uztaileko azken astebururako ekintza sorta antolatzeke lanei ekin diete.

Iazko ereduari jarraituz auzolanean antolatuko dute egitaraua 'Ugarte Bizirik' ekimen kulturalaren izenean. Dagoeneko hainbat bilera egin dituzte egitaraua zehaztu eta antolakuntzari dagozkion lanei ekiteko baina gutxi gorabehera definitua dute nola nahi dituzten egun horiek ospatu. Gauzak horrela uztailaren 30, 31 eta abuztuaren lehen ohiko jaiak ordezkatzeko egitaraua jarriko dute mahaigainean.

*Tabernekin elkarlanean*

Aurreko urtean egin bezala auzoko

komertzio eta ostalaritza establezimenduen inplikazioa eta elkarlana sustatu nahi izan dute, eta jarduera gehienak bertan ospatuko dituzte. Dagoeneko hainbat jarduera aurreikusi dituzte: Bizkotxo lehiaketa, mus txapelketa, igel txapelketa eta tute txapelketa.

Ekintza guztiak osasun neurriak errespetatuz egingo dituzte.

Jarduera horietaz gain, larunbatean -uztailak 31- mendi martxa egingo dute Ugarteko plazatik abiatuta Ermualderaino.

Antolakuntzatik jakinarazi dute datozen asteetan emango dutela egitarau zehatzaren berri.

*Auzokideen aktibazioa*

Jaien ordezkoko egitaraua "herriarren aktibaziorako tresna" izatea dute helburu ekimen kulturalerako kideek. Bereziki 2019an Ugarteko jaien antolakuntzan gauzatutako belaunaldi aldaketari bide emateko helburuarekin. Izan ere, urte

horretako jaietan gazte ugari elkartu ziren jai herrikoiak antolatzeke premia ikusirik. Urte luzez Ugarten desagertuta zegoen jai eredu herrikoi eta parte-hartzailea berreskuratzea zuten helburu, eta baita lortu ere. Jaiak auzora gehiago bideratzea eta gazteei begirako eskaintza handitzea ziren antolatzeke urratsa eman zuten gazteen helburu nagusiak.

Lehenengo urte horretan gauza gutxi aldatzeko aukera izan zuten, denboraz larri ibili baitziren, baina zailtasunak zailtasun egitarauari buelta bat ematea lortu zuten

eta oso harrera ona izan zuen jaien eskaintza berriak. "Jendea oso pozik aritu zen, eta bizilagun ugari esan ziguten gau partean aspaldi ez zela Ugartera horrenbeste jende gerturatzen".

Gauzak hala, aldaketa horretan sakontzen jarraitzeke asmoa zuten hurrengo urteetan, baina pandemiak moteldu egin du prozesu hori guztia. Horregatik espero dute aurten osatuko den eskaintza kulturala belaunaldi aldaketa eta aktibazio horri eusteko nahikoa izatea.

## 'UGARTE BIZIRIK' EKIMENAK HAINBAT JARDUERA ANTOLATUKO DITU

**dorrea**

- EGUNEKO MENUA asteartetik ostiralera
- ASTEBURUKO MENUA
- PLATER KONBINATUAK ETA HANBURGESAK

Ugarte kalea 16, LAUDIO 94 404 88 78

**KIOSKO UGARTE**

637 32 60 59

**GORBEA TABERNA**

Zure auzoko taberna

- Gosariak eta afariak
- Eguneroko menua
- Pintxorik onenak
- Etxera eramateko ere!

Egunero 8:00etatik aurrera zabalik

Ugarte 1, Laudio 94 672 29 75

**UGARTEKO ESTANKOA**

LOTARIA NAZIONALA  
LOTARIA PRIMITIBOA  
BONOLOTO  
EUROMILIOIA  
KINIELAK  
ASKOTARIKO  
GARAGARDOAK

Zaindu, ondo pasa eta zorte on!

Ugarte 6, LAUDIO - 946 720 869

**ULTRAMARINOS SALLÉN**

Ugarte kalea 10 (Laudio)  
94 672 05 63



## Arakaldo

### Aurten ere bertan behera utzi dituzte Arakaldoko jaiak pandemia dela eta



Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

**B**igarren urtez jarraian, aurten ere ez dituzte Arakaldoko festak antolatuko, pandemia egoerak horrela baldintzatuta. Jabi Asurmendi alkateak berak eman

du albistearen berri, eta datorren urtean indar berrituta bueltatzea espero dute. Izan ere, azken urteetan gorakada handia izan dute herriko jaiak. Asteburu bete ekintza antolatu ohi dute, hainbat motatako jarduerekin: kontzertuak, herri kirolak, umeentzako jolasak edota tortilla txapelketa.

## Aiara

### Ekimen kultural ugariz gozatuko dute Aiarako bizilagunek

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

**A**iarako udalak uztailaren zehar Aiarako udal igerilekuetan antolatuko duen kultur jarduera sortaren berri eman du. Uztailaren 2tik hasita uztailaren 30era arte

musikak, magiak, komediak eta dantzak hartuko dute besteak beste protagonismoa. Etxaurreneko igerilekuetan ez ezik, Lantenoko eskolan ere eskainiko dute ikuskizun bat. Uztailaren 16an izango da hori, 22:00etan, eta Gasteizko Korterraza jaialdiko laburmetraiak proiektatuko dituzte.

## Amurrio

### Kultur tantek ureztatuko dituzte herriko kaleak uztailaren zehar, udalak prestatutako egitarauaren bidez



Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

**E**gitarau oparoa prestatu du Amurrioko Udalak ekaina eta uztailaren zehar herriko kaleak kultur ekimenek betetzeko. Kontzertuak, antzerkiak edota zinema emanaldiak eskainiko dituzte Amurrioko parkean atondu duten espazioan.

Ekainean eman zioten hasiera egitasmoari, eta uztailaren zehar jarduera sorta zabal batekin emango diote jarraipena.

Uztaila *Frozen II* pelikularen emanaldiarekin hasiko dute. Proiektzioa uztailaren 24rako aurreikusita zegoen, baina atzeratu behar izan zuten eguraldi txarra zela medio. Gauzak horrela, uztailaren 15an izango da azkenean udako zinema emanaldia, iluntzeko

22:00etan.

Musika eskaintzak protagonismo berezia izango du datorren hilabetean zehar eta eskaintza anitza prestatu dute horretarako. Gainera, sortzaile gehienak eskualdekoak izango dira. Ekainaren 25 eta 26an Combos eta Amurrio Whistles & Co aritu ziren parkeko agertokian. Uztailaren 2an Lomoken Hoboken blues bandaren txanda izango da, eta uztailaren 9an Guillermo Trujillano eta bere taldekideena.

Sortzaile lokalekin jarraituz, uztailaren 29an Cuatro Bancos taldeak rap eta rock doinuekin beteko du parkea.

Bestelako ikuskizunek ere izango dute tarte Aiarako parkean. Uztailaren 31n Lekeitioko Deabru Beltzek piroteknia ikuskizuna eskainiko dute.

SORTZAILE  
UGARI  
IGAROKO  
DIRA  
PARKEKO  
OHOLTZA  
GAINETIK

## Urduña

### Eskutik helduta datoz euskara eta abentura Urduñako gazteentzat

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

**K**iol jardueren ekintza sorta aurkeztu dizkie Urduñako Udalak 12 eta 18 urte bitarteko herriko gazteei, aisialdi eskaintza euskaldun bat

garatzeko helburuarekin. Bi izango dira aukerak.

Lehenengoak eskalada eta arroila-jaitziera txangoak barnebiltzen ditu, eta uztailaren 12 eta 14an egingo dituzte. Bigarrenak, aldiz, tirolina, arku-tiroa eta slacklinea bezalako ekintzak eskaintzen ditu,

eta hauek uztailaren 15 eta 16an egingo dituzte.

Izen-emate epea iragan astean itxi zuten, eta atzo bertan -ekainak 29- bilera informatiboa egin zuten parte hartzaileekin Urduñako zezen plazan, ekintza desberdinak egiteko nola antolatuko diren zehazteko.






# UZTAILA FAKTORIAN

2021eko Uda


*Iluntzeetan terraza, musika, zukuak,  
zizka-mizkak eta giro paregabea!*

ABUZTUAN FAKTORIA ITXITA!  
IRAILEAN INDAR BIZIZ ITZULTZEKO!



## KULTUR PROGRAMAZIOA SARRERAK DOAN!

Izen emateak: [www.faktoria.eus](http://www.faktoria.eus)



*udazkenara  
atzeratua*

~~Uztailak 2, zapatua 20:00ETAN~~

### HARROBI DANTZA BERTIKALA

"Harria-herria" dokumentalaren  
proiektzioa + solasalida Janire  
Etxaberekin eta dantza  
bertikalaren saio laburra



*Bertan behera*

~~Uztailak 9, barikua 20:00ETAN~~

### ZIZTADA & R-LANTZ

KONTZERTUA



Uztailak 16, barikua 20:00ETAN

### KATEAK ATE

KONTZERTUA



Uztailak 23, barikua 20:00ETAN

### ERTZETIK

KONTZERTUA

## +DJ EGUAZ- TENAK!

Eguaztenero DJ sesioa  
terrazan, 20:00etatik  
23:00etara!

### Ordutegi berezia!

Ekonomatua eta kantina  
zabalik astelehenetik barikura  
17:00etatik 22:00etara

Eguen eta zapatuetan  
10:00etatik 14:00etara

### Egin zaitez bazkide

BAZKIDEEK  
SARRERAK  
ERRESERBATZEKO  
LEHENTASUNA  
IZANGO DUTE ETA  
%15EKO  
DESKONTUA  
FAKTORIAKO  
ZERBITZU  
GUZTIAK!



AIARALDEA EKINTZEN  
**FAK  
TORIA**